


DOCUMENTO _ANUNCIO: ANUNCIO WEB BASES estudio euskera -eus	IDENTIFICADORES
OTROS DATOS Código para validación: 35FU1-J9Z3T-111WU Página 1 de 2	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia. Firmado 26/03/2024 15:43
	ESTADO FIRMADO 26/03/2024 15:43



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 67182 35FU1-J9Z3T-111WU 58DE021E71F8B90A021A802A59515FF2047F555A) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://portalverificar Documentos.007pes_codi=28en_id=128d0ma=1

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

IRAGARKIA

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren II. Eranskinean honako hau azaltzen da:

EUSKARA IKASTEKO BEKAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN DOKUMENTUA

I. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA.

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, horrela definitzen ditu diru-laguntzak: Administrazioak pertsona publiko eta pribatuei ematen dien dirua, betiere honako baldintzak betetzen badira:

- Hartzailearen kontraprestazio zuzenik ez izatea.
- Helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat burutzeko, jarrera berezi bat hartzeko edo egoera bereziren bati aurre egiteko bideratuta egotea (egina zein egiteke), betiere, hartzaileak aurrez ezarritako betebeharrak material edo formalak konplitu beharko dituelarik.
- Finantza proiektu, ekintza, jarrera edo egoera horren helburua izatea erabilera publikoko eta interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzea.
- Aipatutako 38/2003 Legearen 9. artikulua xedatzen du, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen duten oinarriek ezarritako arauak onartu beharko direla, Legez ezarritako terminoetan. Oinarri hauen xedea da euskara ikastera bideratutako bekak emateko esparrua arautzea, Barrundiako udalerrian euskara ezagutza sustatzeko helburuz.

II.- BALDINTZA OROKORRAK.

2.1.- Barrundiako udalak bekak emango dizkie euskalduntze prozesuan sartuta dauden pertsona guztiei, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude.

2.2.- 2023-2024 ikasturteko ekitaldian zehar (2024ko urriaren 1era bitarte) egindako ikastaroen arabera onartuko dira bekak eta honako terminoetan eskainiko da diru-laguntza:


- a) 2023ko urritik 2024ko irailera bitarteko denboraldian eskatzaileak sei hilabetez baino gehiagoz langabezian edo ikasketa ofizialak egiten izan badira, bekaren zenbatekoa ikasketa gastuen %98koa izango da gehienez (garraioak eta bestelako gastuak kanpo).
- b) 2023ko urritik 2024ko irailera bitarteko denboraldian eskatzaileak sei hilabetez baino gehiagoz langabezian edo ikasketa ofizialak egiten izan ez badira, bekaren zenbatekoa ikasketa gastuen %90koa izango da gehienez (garraioak eta bestelako gastuak kanpo).

Gehienezko beka honako terminoetan zehaztuko da:

- .- Langabezian edo ikasketa ofizialak egiten izan diren hartzaileak: 800,00 €.
- .- Langabezian eta ikasketa ofizialak egiten izan ez diren hartzaileak: 700,00 €.

III. BALIZKO HARTZAILEEN DEFINIZIOA.

DOCUMENTO	IDENTIFICADORES	
ANUNCIO: ANUNCIO WEB BASES estudio euskera -eus		
OTROS DATOS	FIRMAS	ESTADO
Código para validación: 35FU1-J9Z3T-111WU Página 2 de 2	El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia. Firmado 26/03/2024 15:43	FIRMADO 26/03/2024 15:43



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 67182 35FU1-J9Z3T-111WU 58DED21E71F8B90A021A802A53515FF2047F555A) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idoma=1

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

3.1. Euskara ikasteko beken hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Barrundian erroldatuta egotea.
- Euskara eskoletan %75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

IV.- 2024AN EUSKARA IKASTEKO BEKEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

4.1.- 2024rako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezin izango da 4.000,00 eurotik gorakoa izan. Epe barruan aurkeztutako eskarien arabera, diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoa hartarako aurrekontuaren gordailua baino handiagoa bada, laguntza bakoitzaren gehienezko zenbatekoa murriztu egingo da, aurrekontu-gordailuak estali ahal izateko moduko portzentajea.

4.2.- Eskaria eta dokumentazioa 2024ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren Erregistro Orokorrean.

4.3.- Hartzaileak honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

- Euskara ikasteko beka eskariaren inprimakia.
- Dagokion euskaltegiak igorritako asistentzia-agiria.
- Eskatutako bekarekin eta izan litezkeen beste batzuekin gain-finantzaketarik izango ez dela jasotzen duen zinpeko adierazpena.
- Hirugarrenaren alta-inprimakia behar bezala beteta, beka lehendabizikoz eskatzen bada edo zenbatekoa kontu-korrante berri batean sartzeko eskatzen bada.
- Zergen eta segurantzaren sozialaren betebeharrak betetzen dituenaren zinpeko adierazpena.

V. LAGUNTZEN TRAMITAZIOA.

Euskara Udal-zerbitzua arduratuko da Oinarri hauetan araututako beka eskariak tramitatzeaz eta organo eskudunari esleipena proposatzeaz, hala badagokio.

Denen ezaguratzako argitaratzen da.

ALKATEA